

Mazokaren bigarren edizioak 4.729 bisitari izan ditu, lehenengoak baino % 64 gehiago

Elena Odriozolak eta Gustavo Puertak emandako Ilustrazioaren I. Jardunaldi Profesionalek ere oso harrera ona lortu dute

Abenduaren 16, 17 eta 18an MAZOKA –Marrazki eta Ilustrazio Azoka– egin zen Montehermoso kulturunean, Ilustrados en Araba elkarteak antolatutako, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailaren eta Kultura Sailaren mende dagoen Montehermoso kulturunearen laguntzarekin. Bigarren edizioak 4.729 bisitari izan ditu, hau da, lehenengoak baino % 64 gehiago, beraz, arrakastatsua gertatu da.

4.729 bisitari horietaz gain —lehen edizioan baino 2.000 gehiago— aipatzekoa da jarduera guztiek sortu duten interesa, espero baino eskabide gehiago jaso baitira.

Esate baterako, “Mazokalari” izan eta 40 erakustokietako bat lortzeko 150 eskabide jaso ziren, Araba eta Euskaditik zein Galizia, Gaztela-Leon, Gaztela-Mantxa, Madril, Asturias, Kantabria, Errioxa, Nafarroa, Katalunia eta Valentziatik (bai eta Paristik ere) iritsiak. Familientzako lantegietan astebete baino gutxiagoan bete ziren leku guztiak, eta “Ilustramatoia” — barruan ilustratzailea zuen kartoizko trepetan — baliatuz zuzenean egindako erretratuen kopurua 200dik gorakoa izan zen.

Horri Ilustrazioaren lehen Jardunaldi Profesionalek lortutako harrera ona gehitu behar zaio. Abenduaren 14an eta 15ean egin ziren, eta bertan izan ziren Elena Odriozola (Ilustrazio Sari Nazionala 2015ean) eta Gustavo Puerta (literatur kritikaria); marrazkilari ugari parte hartu nahi izan zuten maisu-klase zein hitzaldietan, proiektua egokia zen seinale.

Ilustrazioaren topaketa osatzeko bi erakusketa antolatu dira, 2017ko urtarrilaren 8ra arte ikus daitezkeenak Montehermoson: “Geruzak, orbanak,antzokitxoak, mugimenduak, siluetak, tirak eta gainerako tramankuluak”, Elena Odriozolaren lanen bilduma, eta “Igoera/jaitsiera”, Arte eta Diseinuko goi mailako Eskolako ikasleen erakusketa. Lanbidearen orainaren eta etorkizunaren zein gertuko ingurunearen eredu argiak dira.

Parte hartu duten “mazokalariak” ez ezik, publikoa ere oso pozik agertu da. Jasotako iritziek oso positibotzat jotzen dute egileen eta herritarren arteko harreman zuzena, formula edo lan ezberdinak zuzenean ezagutzeko aukera, erakutsitako produktuen originaltasuna, lan bakarrak edo edizio mugatuak erosteko erraztasuna eta salmenta arrakasta ia erabatekoa.

Ilustrados en Araba elkarteak ere pozik agertu da emaitzarekin: “era guztietako jarduera eta ekitaldiak betetako asteburu batean apustu ezberdin eta bakar horretara jende gehiago erakartzea lortu dugu, eta horrek lan egiten eta gure hiriaren sorkuntza sektorearen alde apustu egiten jarraitzea animatzen gaitu, marrazkilarien eta arte aplikatuen alorreko profesionalentzat zein horiekin lotutako industria eta zerbitzuentzat (argitalpena, diseinua,

etab.) erreferentia bihurtzeko asmoz, eta gure lanaren askotariko aldagaiak bitartekariei edo azken kontsumitzaileei erakutsi eta hurbiltzearen”.

La segunda edición de Mazoka recibe 4.729 visitantes, un 64% más que en la primera edición

Las I Jornadas Profesionales de Ilustración, impartidas por Elena Odriozola y Gustavo Puerta han tenido también una magnífica respuesta

El Centro Cultural Montehermoso acogió los días 16, 17 y 18 de diciembre el Mercado de Dibujo e Ilustración, Mazoka, organizado por IlustApados en Araba, con el apoyo del departamento de Empleo y Desarrollo Económico Sostenible y Montehermoso, dependiente del Servicio de Cultura. Esta segunda edición, ha recibido 4.729 visitantes, lo que supone un 64% más que en la primera edición, lo que lo convierte en un éxito.

A la cifra de público asistente al Mercado, 4.729 visitantes -2.000 más que en su primera edición-, hay que sumarle el interés que ha suscitado cada una de las actividades realizadas, con un número de solicitudes superior siempre al esperado.

Empezando por la cifra para adquirir la condición de mazokalari -150 solicitudes para 40 puestos provenientes tanto desde Araba y resto de Euskadi, como Galicia, Castilla-León, Castilla La Mancha, Madrid, Asturias, Cantabria, La Rioja, Navarra, Cataluña, Valencia e incluso una desde París-, hasta los participantes en los Talleres para familias, cuyas plazas se llenaron en menos de una semana, o el número de retratos efectuados en directo por el “Ilustramatón” -artilugio de cartón con un ilustrador dentro- durante el desarrollo del Mazoka, que en esta edición superó la cifra de 200 trabajos.

La esto, se le une la buena respuesta obtenida en las primeras Jornadas Profesionales Mazoka con la presencia de Elena Odriozola (Premio Nacional de Ilustración 2015) y Gustavo Puerta (crítico literario) los días 14 y 15 de diciembre, en el que se dio un alto número de dibujantes deseando asistir a sus masterclass y ponencias que auguraban el acierto del proyecto.

El encuentro de Ilustración se completó con dos exposiciones que se pueden seguir disfrutando hasta el 8 de enero de 2017 en Montehermoso, “Capas, manchas, teatrillos, movimientos, siluetas y demás trastos” que muestra un amplio abanico de trabajos de Elena Odriozola y la muestra “Ascenso/Descenso” realizada por el Alumnado de Ilustración de la EASD de Vitoria-Gasteiz, en un claro ejemplo de presente y futuro de la actividad, y de nuestro más inmediato entorno.

Por último, el mercado de dibujo e ilustración no sólo ha contado con el entusiasmo de los mazokalaris participantes, sino también con la satisfacción manifiesta del público asistente. Las opiniones recogidas valoran muy positivamente el encuentro directo autor-ciudadano, la posibilidad de interactuar o conocer las diferentes fórmulas o el trabajo en directo, la originalidad de los productos expuestos, la accesibilidad para poder adquirir obra única o ediciones limitadas y el, prácticamente unánime, éxito de ventas.

Desde Ilustrados en Araba muestran su satisfacción por los resultados “En un fin de semana repleto de actividades y eventos de todo tipo de disciplinas, conseguir incrementar la atracción, traducido en personas asistentes, por esta apuesta diferente y única, nos anima a seguir trabajando y apostando por el sector creativo de nuestra ciudad mientras asentamos las bases con el objetivo de ser un referente para los profesionales del dibujo y las artes aplicadas, así como de las industrias y servicios conexos: editorial, diseño, etc. mientras acercamos y visibilizamos las múltiples variables de nuestro trabajo al intermediario o consumidor final”.